

# Gurutzeko Juan deuna

## Bere liburuetan

Santuak beti, geure eredu ta jarraibide doguz. Batetik bestera alde aundia dago, zetan esanik ez. Baiña eurak erakutsi euskuen aspaldi bateren, guk mundik nora ibilli bear genduan, eurak eskuratu ta jaritxi eber betike arsedena ta argia. Jainkoaren altzo ederrean, guk be lortu daikagun. Beraz, areiri oñatsetatik ibilliaz, eurak zorientsu bizi diran pozetko ta argitzko lekura e'dukoko gara. Ta bizi opa dogun egor'eku zrek ez dau azkenik iñoiz izango.

## Egi-zale

Entz asko daukaz Gurutzeko Juan deunak, guk mundik begiratu n hun ikasi argi ta garbi eskintze dauskuenak. Arrigarria dogu babilizaz, nai egin ebazan mirarial gogoratuz, nai idatzi aruan "Ibaiz iekintsu, mamintsu ta jainkoekoen, gogora ekarriaz. Eta ez uste orain laruan urteko gauzak d'rala berak egiñko mirariak eta idatzitako liburak. Ordukoak eta gaurkoak doguz. Arek egiñko mirariak bates be, bizitza santu bat doguz ta mundu onetan, len eta orain, baita gero be, santuak izateko gagoz. Idatzi ebazan liburua, gaurkoak gurtiz

gaurkoak ditugu. Mistika arloan eta olerki-zelaian Gurutzeko Juan dogu gaur be, jakitunak geien goratu ta aitatzen dabena.

Zer dala-ta? Gizon egizale ta jatorra izan zalako. Berak oar-ikasiz edo experiëntziz ikasia eskintzen dauku bere liburu atsegingarrietan. Danok gabiltz Jainkoaren billa, mundu onetan Ilunbetan lez gabiltzan hitartean. Eta Gurutzeko Juanek, bere mundik nora ibilli zan diñoko liburu atsegingarriro, gozora egi. Ta esan ost' dugu inportantzi aur'atzen, gaur eta gero.

Entz asko daukaz Gurutzeko Juan deunak, guk mundik begiratu n hun ikasi argi ta garbi eskintze dauskuenak. Arrigarria dogu babilizaz, nai egin ebazan mirarial gogoratuz, nai idatzi aruan "Ibaiz iekintsu, mamintsu ta jainkoekoen, gogora ekarriaz. Eta ez uste orain laruan urteko gauzak d'rala berak egiñko mirariak eta idatzitako liburak. Ordukoak eta gaurkoak doguz. Arek egiñko mirariak bates be, bizitza santu bat doguz ta mundu onetan, len eta orain, baita gero be, santuak izateko gagoz. Idatzi ebazan liburua, gaurkoak gurtiz

gaurkoak ditugu. Mistika arloan eta olerki-zelaian Gurutzeko Juan dogu gaur be, jakitunak geien goratu ta aitatzen dabena.

jagia, olermenaren argi-aldietan batez be.

### Bere liburuak

Ezaguerari dagokio ederra; ta izadiko ederra, begiz ta belarriz jasoa oi dogu geienean; oneik dira, ba, eder-zentzunik berezienak. Gurutzeko Juan'ek, ostera, biak eukazan —ikusmena ta entzumena— zoli ta zorrotzak. Idatzita itxi euskuzan liburuetan parra-parra ereinda aurkitzen doguz iduri bizi ta eragilleak, ikusmen argia adierazoten dauskuenak; entzumen zolia be bai, aren olerki ta bertsoetatik atera daikegunez. Orrela egiñak dira bere lanak. Lumea artu ta erabilli, ez eban besterik egin; barrua emon, ustu parrastaka. Ta onela egin daben idazleak, lengoak, oraingoak eta betikoak dira.

Zoritxarpean bizi edo dagoan bitotza, geenez, misterioz bete-betea daukagu. Berez-berez joten dau gorantza, Jainkoaren billa, laguntasun eske zerurantz zuzendu oi ditu begiak.

Auxe jazo zan Juan deunagaz be. Goiz illun batean, barruko aitu-eziñak zirala-ta, Toledo'ko karmeldar komentuan giltzape ipiñi eben, ondo zainduta. 1578'garren urtea zan, eta 37 urte eukazan praille kapa zuridunak. Eta antxe, presondegi ondo begiratu atan, Jaungoiko

koak barrua ikutu ta berotua, bere olerki ta poesi libururik ederrena, ezilkorrena idazten asi zan. **Barru-kanta**, maite kanta (Cántico Espiritual) deritxo oni, gaur be poesi-antoloji guztietan agertzen dana, Kanta onetan ustu eban bere barrusuz ixiotua, Jainko-maitasunez gainezka eukana.

Geroago idatziak ditu **Karmel-mendira Igoera**, **Gau illuna** ta **Maitesugar bizia**. Mistika gaiez, Jainko ta arimaren arteko artu-emon ixillak azaltzen dauskuez lau liburuok, **Barru-kanta** ta **Maitesugar bizia** batez be, guztiz ederto eratu ta adierazorik itxi euskuzan.

### Bere irakatsia

Gurutzeko Juan deunaren dotriñan, arimea garbitzea da lenen-lengoko zeregiña. Ta au, aparteko moduz, lenengo bi liburuetan egiten da: **Karmel mendira Igoera'n** eta **Gau illunean**.

Nun aurkitzen ete da Jauna? Karmel tontorrean; an sarri nabari izan eban Elias igarleak be. Arimea, ba, ara doa, Aren billa. Baiña Jainkoaz batu ta maitasun berroz alkartu baiño len, oso-osorik garbitu bearra dau. Ta orrela, ixillezko jakite ontan, maillaz mailla igozik doa arimea; bidean ba-ditu zer garbitu ta zoztorrak: mendi gaineko aize bigunetan murgil atse-

dena artzera orduko, miñaren miñez, gau izugarrian, nora-ezean, gorriak ikusi bearko ditu. Arima gainxoa!

Adimena zeatz-zeatz garbitu bear dau, baita naimena be. Oneik bai dira arimearen indar berezi biak. **Igoera'n** arimea bera da barrugarbiketa lanean diarduen; **Gau illunean**, ostera, arimeak berak baiño lan geiago dagi Jaungoikoak, laster emazte izango dauan arimea akats eta orban guztietatik garbitu ta edurra baizen zuri ta aratz biurtzen.

Garbiketa au azaldu ta adi-erazteko, sua ta egurraren iduria dakargu gogora. Bota egizu egur eze (berde) bat sutara, ta egur berde orreri lenengo keak dario, —arimearen neke, oiñaze ta sufrimenduak—, eta azkenez gori-gori biurtzen da ta eztau kearik botaten. Olan gau illuneko arrago edo laba bizi onetan be, Jainkoak gertau oi dau Beragaz bat-egin ta alkartu nai dauan gogo.

**Igoera** deritxon liburuan, zentzun-garbiketa azaltzen dausku. Bigarrenetan, ostera, au da, **Gau illunean**, gogo utsaren barreneraiño sartu ta arimea, zentzun-eragin eta ekin kaxkar barik, nasai ta eder dabillen azpi-zoko ixillena arakatzten dau gure mistiku aundiak.

Alan be, gau baltz ori ezta beti-

koa: gau ondoren eguna etorten, ekaitz ostean ezialdia. Izadiko legea. Bardintsu arimen barrutian be: samin, neke ta oiñaze-lorrak amaitzean, zorapenezko argiak dizdiz egiten; eta aurretik sufridutako naigabeen izpirik be ez dogu ikusi ez oartzten, ondoren zauskada gozoen ezta miazkaturik. Lengo lorra ta nekea utsa dirudigu orain. Eta emen dogu **Barru-kanta**'ren asiera zoragarria.

### Maite kanta

Gurutzeko Juan'ek ez eban ezer be bere dotriñan erdizka edo errenka itxi. Gauza bakotxari bere euskarri ta abea jarri eutson. Arimea, garbitu ondoren, Jaunagaz alkartzten da. Alkartze orretzaz da bere **Barru-kanta** osoa, munduko literaturan ezagutzen danik eta poesi lirikurik ederrenetarikoa. Arimea, gau illuna igarotakoan, argitatu da, poz-atsegiñera; urte berrak, berrak baltz ikaragarriak; gogorak, gogorak neketsua izan da gure mistiku, berrak or orain arimea gure gogorak, berrak mendi-tontor eguzkiaren argizko argitan blei blei.

Zugatza ba-dakigu, berrak berrak dan, eguzkiaren berroz eta berrak ezatasunak lagunduta. Just deunaren kanta onetan be, aziaz doa arimea, maitasunean aurreratu ta ugarituz; eta azi goratze orretan, bide egalean, olako gomutagaillu batzuk

izten ditu, arrimokor antzera. Zer ete? Arimeak Maiteagandik artutako doai ta ontasunak, egin dautsozan adierazpen arrigarriak, eza-guera ta maitasunezkoak: ikustaldi, mesede, albiste, zauri, maite-ikutu ta abar. Arimea gorantz doa orre-in bitartez, mendi ezkutuko mailadian gora, an goigoian ospatuko dan jan-edate pozgarri ta betikorrera eldu arte.

Biotzez maite diranak alkar ikusi nai, albait eta sarrien, Kristo'k, ikustaldi atsegingarriakaz poztu ta biztu-azoten dau arimea. Ba-daki onek nor dauan eta zer dagian; eta ezagueran aurreratuz doian maitasuna, bizi ta beroa izan oi da. Augaitik, poemaren erdirantza, olako nor-geiagoka bat asten da bien artean; au da: Kristo ta arimearen artean, guztiz gozo ta samurra.

Poema osoa begiz jo ezker, bost mailla lez aurkitu geinkez, osoaren batasuna ezetan be ausi barik. Juan deunak, berak bere barruan ikusitakoa, emoten dausku geienik berrogei ahapaldi edo estrofako kanta onetan. Baiña ez egunetik eguneko bere barne-bizitzaren istori osoa lez; momentu batzuk bakarrik azaldu ta adierazo euskuzan antz-iduri ta metafora sutsu batzuen bitartez, Jaunagana eltzeko emon bear ditugun pausuak begi aurrean guri ipiñirik.

### Lenengo maillak

**Barru-kanta**'ren lenengo mailla edo aroa, lenengo estrofatik 12'garreneraíño luzatzen da.

Kristo'ren gozotasunak artu dauz arimeak; baiña ia konturatu barik, gorde egin yako. Ta ez daki nun ezkutatu yakon. Eta onela asten da deadarka:

**Nora jun zara, Maite,  
ni emen itxirik min-garrasika?  
Basauntz antzera zoaz  
iges ni zauriturik;  
emen nozu deiez, ta Zu gordeka.**

Ta olaxe dabil arima maite-mindua, kanta eder onen 12 estrofetan: Jaunaren hilla, Kristo'ren atzetik, oni itaun ta ari galde. Ara ta ona, aspertu barik, Matearen hilla. Maiteak, egia esan, mandatariak hialtzen dautsoz, zer eta zelakoa dan esanik. Baiña oneik be geiagoko zauritu besterik ez dagie, il-agiñean itxirik euren berbeta totelez. Itsi-antzera, azkenean ots:

**Ai, nok osa nagike!  
Onezkero neure zaitetz, egite!  
Ez egidazu bialdu  
gaurgero geznaririk  
nik naia esaten ez dakianik.**

Oi, bizi, zelan dirauzu ezin lez? Aren arpegia ikusi gura dauz. Bizi-bizi dei dagi, ara ta ona. Orre-axe 12 ahapaldiak, bakar izketa gortan,

duda ta ezpai garratzez betea. Bizi nai dana ezin albora itxi. Erlea dirudi lorarik lora, burrun-burrun.

### Alkartzea

Goazen aurrera. 13'tik 19'raiño-ko estrofetan, Senar-emazteen, au da, Kristo'ren eta arimearen alkartzea azaltzen dausku Juan deunak. Alegindu ezker, izan be, arin edo berandu jaritxi oi dogu hilla gabiltzana. Arimea baketu da, hilla-keta leiakor ostean. Ur gardena txirrioka emoten eban iturri aurrean itaunka egoala, begiak jaso ta Maiteagaz topoz egin dau. Aren argizitzaren gogorra ezin dau eroan; oindiño eztago, ha, bear baizen garbi, Aregaz alkartzeko bear baizen duin. Eta arimeak berak, apur baten beintzat, begi arein argi-dizdiza alboratzeko ezkatzen dautso.

Ondoren itz dagitso Maiteak, «Itzuli zaitetz —diñotsa—, uso eder; ona basauntz zauritua muiño gaiñean zure ego-aizearen giro ozkirrian atsegintsu». Arima-emaztearen zoriona! Barru osiñeraiño sartu yako gozotasunaren ezta; munduko gauza ta zer guztiak be lurrun usaintsu ta begi-betegarri egin yakoz; eta deika asi da, baso, zelai, aize, egazti ta ugarte, zurrunbilloan gogora ekarriaz. Pozkariozko abestirik ederrenean goratzen dau Maitearen iduri bikaiña, izaditik artutako antz-iduri bizi ta lerdenen bi-

tartez. Baita gero, ederto be ederto, marratzu be biak alkar artu dabenetik asi daberen bizitza barria.

Maixu antzera diardu emen gure Santuak, idazkera be zerbait aldatuz. Aurreko estrofetan ez ebazan erabilli gitxi baiño izen-laguna (al-jetibua) ta abar: emen, oster, olako itzak lilluragarriro jazten ditu laguntzaille dotorez: «bakar oiantsu», «erreka soiñulari», «aize bigun», gauaro ixil», «bakartegi zoli», «apari eztizko», ta alakoakaz... Arimea be osotasun maillan gorago igona dabil.

### Ezkontza

Kristo'k arimeagaz ta arimeak Kristo'gaz alkarren artean dagien ezkontzea kantatzen dau, 20'garren estrofatik 27'raiño.

Maite kanta onen momenturik arduratsuen. Maite biak alkar aurkitu ondoren, ezitari dagoz eskuak emonik. Emazteek etan ezaritariko zaratarik gura Maitearekin dago-ta, begoz urripi aurreratu ta oindiñor mendian agertu: Beroa gortoa be bego geldirik, juduaren katxak bardin, ez begi an urripi otsik atara, Maiteak lili antzera nasa artu dagian.

Senarrak bere aldetik «guztiz»: «basauntz», «mendi», «aize», «sargori» ta olakoai dei dagitse zoli bai

zoli, Kutunak nasai lo egin dagian ormarik ez ikutzeko eskatuaz. Emaztea, ba, opa eban baratzean sartu da, ta bertan dago maite dauanaren besarte bigunean burua makurturik. Biotz gori bi —Kristo ta arimea— alkarri itsatsirik.

Maite biak gero ardangela ixillera doaz. Eta Kristo'k an emoten dautso arimari, bere maitasunezko ardo goxoa. Juan'ek onela 26'garren ahapaldian:

**An nindun bateatu,  
an irakats eustan eztizko jakintza;  
nik, oster, nazana  
oso neutsan eskiñi  
betikoz emonik emazteko itza.**

Olerkariak, beti lez, giar pinta-zen dauskuz Maitale bien maite-  
lillurazko artu-emote oneik, itz-  
ko bitxi ta aberatsez gaiñezka, Ze-  
lako gaia, alako itza dau Gurutze-  
ko Juan deunak.

### Maite-bizitza

Onezkero bata bestearenak dira  
Ta maitasuna dabe jardun bakarraz;  
gartsu be gartsu alkar maite izan,  
ez dabe besterik, batasunezko goi-  
maillara eldu diranetik. Eta jardun  
orretan, aurretik izan dabezan lar-  
rri, estualdi ta maite-mintzeak da-  
karrez gogora.

Emazteari eder yako beiñola Mai-

tea beraganatzeko erabili zituan  
bide ta maltzurkeriak gogoratzea  
ule bakarra ekarren lepoan, dardar  
aizeak jotean, bere begi batek zau-  
ritua. Kristo'k, barriz, begiratu ta  
doai-ederrez jantzi eban osorik.  
Azalez be len baltzeran zenduana,  
orain lotsakizun barik begiratzeko  
eran daukagu: Kristo'k begiz lo  
eban ezker, ederrik ipiñi eban ezin  
bestean.

Alkarri egin eutsoen emotea, oso  
osoa izan zan, antza; arimea, bein-  
tzat, kemen ta adore guztlakin Mai-  
tearen mendeko dozu; aurrerantze-  
an eztau abere-zaintzerik, eta lengo  
lagunak, zelai ta bedartza zear, iku-  
si ba'dagie, maiteketan ibillirik gal-  
dua dala uste izan begie. Maiteagaz  
batean «lora ta pitxi guriz» txor-  
tak be egingo ditu; au da, birtu-  
tezko agite onez bere burua gero  
ta geiago apaintzen aleginduko da.

Senar-Kristo, barriz, pozik dago;  
uso zuria kutxara itzuli be yako,  
abar eze bat pikuan dauala. Baka-  
rrean bizi dira, bakarrean eseder  
artu ta alkar maite izanik.

Auxe da Juan'ek bere kantuan 28  
netik 35'ra dakarrena.

### Zeru-min

Azkenengo bost ahapaldien (40  
dira guztiz), Emaztea maitso da  
bakar antzera. Ustetsu agertzen da,

baiña ez oindiño guztiz aserik, eta  
eskabide barriak egiten dautsoz  
Mateari: ederrik asko ikasi dau  
Aren ikastolan, baiña geiago ezagu-  
tu gura.

Maite-billa asi zanean nun aur-  
kitu eban adierazo euskun: «ibar-  
ondo urdiñean», «baratz atsegin-  
garran», «ardangela ezkutuan». Ez  
yako naikoa. Toki bakarrago bat  
nai dau. Senar maitearekin kezka  
izpirik bage egon al izateko. Eta  
bakar-zale ta griña orrek bultza-  
tuta, bere ustez beintzat leku se-  
guru ta egokiagoak diranak gogo-  
ratzen dautsoz: «ur gardena darion  
muniña», «ango itzalpe barnekoia»,  
«goi dagoan artzuloa».

Antxe gordeko dira. Baiña, au be  
naiko ez ba'litz, izadiko mugak iga-  
ro ta arimeak urrin lez erdi-ikusten  
dauan «zeruraiño» elduko dira.  
Atsegiñezko baratzaren bestekal-  
dean, baso itsuan aurrera joanik,

zerua baita aurkitzen. Eta Kristo'k  
an emongo dautso beste egunez  
erakutsi ta emon eutsona:

**Aizearen ots mea,  
txindor eztiaren maite-leloa,  
ibar ta ango giroa,  
izar dan gau narean  
min bage erreten daun sugar-  
[lanboa.**

Auxe dogu, arin-aringa Gurutze-  
ko Juan deunaren mistika-era ja-  
tor berezia, berberak oarrez ta bi-  
ziz ikasia, ta guri eredutzat itxi  
euskuna. Izan be, geure barren-ba-  
rrenean ba-dogu olako leku ixil  
txanbeliña; ortxe batu oi dira sarri  
maitale bi —arimea ta Jainkoa—,  
ta gizonaren miñak esan ezin bes-  
teko jazoerak izan oi dabez, arimea  
lurrezko loiez garbitu ta maite-su-  
tan gorituaz doanean.

Aita Onaindia

